

Donostiarron ikusmiran

# Udaltzainen lan baldintzak hobetuko dira

**U**dal Gobernu Batzordeak Udaltzaingoaren lan baldintzak hobetzea eta eginkizun gehiago agintzea onartu du. Baldintzak hobetzeari dagokionez, udaltzainen erdiek 6.000 pezeta gehiago eskuratuko dituzte hilero, 35 orduko astea ezarriko da Udaltzaingoan eta Udalak beste hogeitau udaltzain hartuko ditu. Horrez gain, behin-behineko langileen egoera konpondu nahi da eta lan egutegia negoziatzeko mahaia osatuko da.

Eginkizunetan ere aldaketak egingo ditu Udala Gobernu Batzordeak. Helburua da udaltzai-



Argazkia: Imanol Olegi

nak mota askotako ardurak hartzeko gai izatea. Esate baterako, udal araudia betearazi behar duen lan taldea Urumea eta kostaldea zaintzeaz ere arduratuko da. Trafikoa zaintzen duten udaltzainek, bestalde, sakeleko ordenagailuak eramango dituzte isunak jartzeko eta horrez gain, istripuetan lagundu ahal izango dute.

Gogorarazi behar da udaltzainek hainbat protestaldi egin zutela udan, Udalak lan baldintzak hobetitzan eskatzeko. Aipatzekoak dira bereziki Aste Nagusian egingakoak.

## Herrerako gaztetxeko lagunek ez dute etsi nahi

**J**oa den asteazkenean, hilak 11, Jose Elosegi etorbideko gaztetxean langileak sartu eta etxea behera botatzeko egin beharreko lanak egiten hasi ziren. Udala Jose Elosegiko etxe hau eraitsi nahi du, baina gaztetxeko lagunen esanetan, ez zekiten lanak berehala hastekoak zirenik. Gazteek diotenez, lehen Alzako Rutilita gaztetxean zeuden, handik kanporatu egin zituzten eta oraingo honetan Herrerako gaztetxetik kaleratu dituzte. Hala ere, "Udalak eraikin bat eman edo utzi arte, okupatzen jarraituko dugu", adierazi dute.

## Egia parkeko jauregia konponduko dute

**E**gia parkeko Mandasko dukearen jauregia berritzen eta txukuntzen hasiko dira datorren abenduan. Konponketa lana Tailer Eskolan parte hartzen duten gazteek egingo dute. Egitasmoaren aurrekontua 327 milioi pezeta izango da, guztira. Ehun milioi Inem erakundeak jarriko ditu eta gainontzekoa, Donostiako Udalak. Bai jauregia, baita parkea ere, Fermin Lasala y Collado Mandasko dukearenak ziren. Politikari donostiar hau XIX. mende erdialdean jaio zen eta 1917an hil zenean, hiria eskutik utzi zituen eraikinak eta lurak.

**DATUA**

**7.000**

**IKASLE**

Donostiako ikastetxetan DBH ikasten ari diren ia 7.000 gazte hiriaren etorkizunaz gogo eta egitea proposatzen duen ekimen batean parte hartuko dute. Ekimena "Hiri historikoetan bizitzeko" du izena eta La Caixa Fundazioak antolatuta du. Gazteek hainbat gai jorratuko dute, historia, geografia edota natur zientziak adibidez, eta helburua da Donostiako ondasunen balioak ezagutzeko eta hiriaren etorkizunari izan lezakeen garapenaz hausnarketa egitea.

## Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Astea prest

Datorren ostiralean, urriak 27, hasiko da Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinema Astearen XI. edizioa. Azaroaren 4ra arte luzatuko den jaialdi honetan, era guztietako filmeak emango dira. Sekzio ofizialean pantailaratuko diren lanez gain, nabarmentzekoa da gero eta izen handiagoa hartzen ari den laburmetraien lehiaketa. Azpimarratzekoa da, bestalde, Unibersal ekoiztetxe ospetsuari eskainiko zaion filme zikloa. Aurten, iaz bezala, hurrei zuzendutako bi filme emango dira Kursalean euskaraz azpigitulaturik.

